Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko otsailaren 8a, asteazkena — 27 — Miércoles, a 8 de febrero de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

*Udal Elkarteko egoitzako ekitaldi-aretoa eta prestakuntza-gela erabiltzeko arautegia eta prezio publikoak behin betiko onartu eta argitaratzea.*

Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2016ko urriaren 6an egindako ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Udal Elkarteko egoitzako ekitaldi-aretoa eta prestakuntza-gela erabiltzeko arautegiaren eta prezio publikoen aldaketari.

Jendaurrean erakusgai jarri eta alegaziorik izan ez denez, arautegi eta prezio publikoen aldaketa behin betiko onartutzat eman da.

Horrenbestez, iragarki honen bidez, argitara ematen dira Urola Kostako Udal Elkarteko egoitzako ekitaldi-aretoa eta prestakuntza-gela erabiltzeko arautegia eta prezio publikoak.

Zarautz, 2016ko urtarrilaren 26a.—Igor Iturain Ibarguren, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria. (589)

*Udal Elkarteko Egoitzako ekitaldi-aretoa eta prestakuntza-gela erabiltzeko arautegia eta prezio publikoak.*

### I. XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Urola Kostako Udal Elkarteak prezio publikoa ezarri eta eskatuko du akordio honen eranskinean adierazitako zerbitzu edo jardueraren ordainetan, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituenaren) 55. artikuluak eta apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren (Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzeari buruzkoaren) 2 eta 14. artikuluek aurreikusitakoarekin bat etorriz. Prezio hori ezarri eta eskatuko du ordenantza honetan xedatutakoaren argitara.

*2. artikulua.*

Arau hauek aplikatuko dira toki erakundearen lurralde eremu osoan.

*3. artikulua.*

Zerga-gaia izango da zerbitzua eskaini edo jarduera burutzea.

### II. ORDAINDU BEHAR DUTENAK

*4. artikulua.*

Prezio publikoak ordaindu beharko dituzte Urola Kostako Udal Elkarteko ekitaldi-aretoa eta prestakuntza-gela erabiltzen dituztenek, arautegi honen eranskinean ezarritakoaren arabera.

## MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA

*Aprobación definitiva y publicación de la modificación de la norma reguladora y precios públicos por el uso del salón de actos y del aula de formación de la Mancomunidad Urola Kosta.*

La Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad Urola Kosta, en sesión ordinaria de fecha 6 de octubre de 2016, acordó, con carácter provisional, la modificación de la norma reguladora y precios públicos por el uso del salón de actos y del aula de formación de la sede de la Mancomunidad Urola Kosta.

Sometidos el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido a información pública, sin que se haya presentado ninguna reclamación, la norma reguladora y precios públicos se tienen por definitivos.

Por consiguiente, se procede a la publicación de la norma reguladora y precios públicos por el uso del salón de actos y del aula de formación de la Mancomunidad Urola Kosta.

Zarautz, a 26 de enero de 2016.—El presidente de la Mancomunidad Urola Kosta, Igor Iturain Ibarguren. (589)

*Norma reguladora y precios públicos por el uso del salón de actos y del aula de formación de la Mancomunidad Urola Kosta.*

### I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

La Mancomunidad Urola Kosta, de acuerdo con lo previsto en el artículo 55 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, y los artículos 2 y 14 de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece y exige precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades especificados en el Anexo, y según las normas contenidas en este acuerdo, de las que aquéllas son parte integrante.

*Artículo 2.*

La norma se aplica en todo el ámbito territorial de la Entidad Local.

*Artículo 3.*

Constituye el hecho imponible la prestación del servicio o realización de actividades.

### II. OBLIGADOS AL PAGO

*Artículo 4.*

Estarán obligados al pago de los precios públicos los usuarios que hagan uso del salón de actos y del aula de formación de la Mancomunidad, según lo establecido en el anexo de este documento.

EK\CV GAO-I-2017-00589

III. ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO BETEBEHARRA

*5. artikulua.*

Eskakizun diren zenbatekoak ordainduko dira eskatu edo burututako zerbitzu edo jardueren argitara. Ordaindu behar denaren zenbatekoa zehaztuko da eranskineko prezioen arabera.

IV. ORDAINKETA

*6. artikulua.*

Akordio honek arautzen dituen prezio publikoak ordaintzeko betebeharra sortzen da zerbitzua edo jarduera jaso edo burutzearekin eta ordainduko da jaso edo burutu ondoren, Urola Kostako Udal Elkarteak ordaintzaileari ordaindu behar duen zenbatekoa jakinarazi eta gero.

*7. artikulua.*

Prezio publiko horrekin sortzen den zorra behartze bidez eskatu ahal izango du administrazioak.

V. AZKEN XEDAPENA

Arau hauek eta eranskina indarrean jarriko dira Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean eta indarrean jarraituko dute aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

ERANSKINA

*Urola Kostako Udal Elkarteko egoitza nagusiko ekitaldi-aretoa eta prestakuntza-gela erabiltzeko arautegia eta prezio publikoak.*

1. Aretoa eta prestakuntza-gelak erabiltzeko arautegia.

Urola Kostako Udal Elkarteak egoitza nagusian (Urdaneta bidea 6, Zarautz) dituen ekitaldi-aretoa eta prestakuntza-gela eskualdeko herritar, elkarte eta enpresen eskura jarri nahi ditu, beren ekitaldi edo batzarrak egin ditzaten, betiere ekitaldi edo batzarraren edukiak Udal Elkartearen jarduera-eremuekin zerikusia baldin badu.

Hori dela eta, Udal Elkarteak arautegi hau onartu du, aretoak uzteko baldintzak eta prezioak zehazteko.

2. Areto eta gelak.

Udal Elkarteko egoitza nagusiko (Urdaneta bidea 6, Zarautz) honako lokal hauek aloka daitezke:

— Ekitaldi-aretoa: 75 pertsonentzako edukiera; pantaila, proiektorea eta internet konexioa.

— Prestakuntza-gela (beheko solairuan): 20 pertsonentzako edukiera; pantaila, proiektorea eta interneteko konexioa.

3. Eskatzaileak.

Lokal horiek erabili ahal izango dituzte Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako pertsona fisiko eta pertsona juridikoek, baldintza hauek betetzen badituzte:

— Pertsona fisikoak: Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian erroldatuta egotea.

— Pertsona juridikoak (irabazi asmorik gabeko elkarteak edo enpresak): Egoitza iraunkor bat Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian izatea.

— Ekitaldi edo batzarraren edukiak Udal Elkartearen jarduera-eremuekin zerikusia izatea.

Goiko baldintza horiek betetzen ez dituzten eskabideak kasuan kasu aztertu eta erabakiko ditu Udal Elkarteak.

III. CUANTÍA Y OBLIGACIÓN DE PAGO

*Artículo 5.*

Las cantidades exigibles se satisfarán por cada servicio o actividad solicitados o realizados. La cuantía que corresponda abonar se determinará de acuerdo a lo establecido en el anexo.

IV. COBRO

*Artículo 6.*

La obligación de pagar los precios públicos regulados en este acuerdo nace desde la prestación del servicio o la realización de la actividad y se satisfará con carácter posterior una vez que la Mancomunidad Urola Kosta notifica al obligado al pago el importe a sufragar.

*Artículo 7.*

Las deudas por estos precios públicos podrán exigirse por el procedimiento administrativo de apremio.

V. DISPOSICIÓN FINAL

La presente norma, con su Anexo, entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ANEXO

*Norma reguladora y precios públicos por el uso del salón de actos y del aula de formación de la Mancomunidad Urola Kosta.*

1. Normativa para el uso del salón de actos y del aula de formación.

La Mancomunidad Urola Kosta desea poner el salón de actos y el aula de formación de su sede (Urdaneta bidea 6, Zarautz) a disposición de las personas, entidades y empresas de la comarca, para que puedan celebrar en las mismas sus actos o jornadas, siempre que los mismos tengan relación con los ámbitos de actuación de la Mancomunidad.

El presente anexo establece las normas y condiciones de uso de dichos locales y sus precios públicos.

2. Salón de actos y aula de formación.

Se podrán solicitar los siguientes locales, situados en la sede de la Mancomunidad (Urdaneta bidea 6, Zarautz):

— Salón de actos: Capacidad para 75 personas, con pantalla, proyector y conexión a Internet.

— Aula de formación (planta baja): Capacidad para 20 personas, con pantalla, proyector y conexión a Internet.

3. Solicitantes.

Podrán solicitar el uso de dichos locales las personas físicas y jurídicas de Aia, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaia, siempre que cumplan las siguientes condiciones:

— Personas físicas: Estar empadronadas en Aia, Getaria, Orio, Zarautz o Zumaia.

— Personas jurídicas (asociaciones sin ánimo de lucro o empresas): Disponer de una sede permanente en Aia, Getaria, Orio, Zarautz o Zumaia.

— Que el acto tenga relación con los ámbitos de actuación de la Mancomunidad.

Las solicitudes que no se ajusten a las condiciones arriba indicadas serán estudiadas y resueltas por la Mancomunidad.

EK\CV GAO-I-2017-00589

4. Eskaera.

Aurrez Udal Elkarteari eskaera egin behar zaio, idatziz. Eskaera egiteko eredua Udal Elkartearen Idazkaritzan eta webgunean egongo da eskura (www.urolakosta.eus).

5. Egutegia eta ordutegia.

Udal Elkarteak aretoak alokatuko ditu 8:00etatik 15:00etara, egoitza zabalik dagoen lanegun guztietan, betiere Udal Elkarteak bere jarduerak burutzeko behar ez baditu.

Bestelako ordutegian erabiltzeko aukera kasuan kasu aztertuko da.

6. Aretoen erabilpena eta txukuntasuna.

Erabiltzaileak aretoak egoki erabiliko ditu eta hartutako egoera berean utziko ditu (aulki, mahai eta gainerakoak hasieran zeuden bezala). Udal Elkarteak beharrezko argibideak emango dizkio aretoa eta aretoko osagaiak erabiltzeko. Argibide horiez gain ez zaio erabiltzaileari bestelako laguntza osagarririk emango.

Ekitaldia dela eta, aretoa apaindu edo aretokoak ez diren osagaiak jarri nahi baldin badira, eskaeran adieraziko da, zehatz-mehatz.

7. Prezio publikoak.

Honako prezio publikoak ordaindu beharko dira aretoak erabiltzeko:

— *Aretoa:* Ekitaldi-aretoa.
*Lehen bi orduen prezioa:* 75,00.
*Hortik aurrera, orduko:* 30,00.
— *Aretoa:* Prestakuntza-gela.
*Lehen bi orduen prezioa:* 50,00.
*Hortik aurrera, orduko:* 20,00

Prezio horiei unean uneko BEZaren tipo orokorra erantsi behar zaie.

Prezio horiek urtero eguneratuko da, urtarrilean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko urte arteko KPIa aplikatuta (aurreko ekitaldiko urritik irailera). Prezioak eguneratu eta aplikatzeko ez da beharrezkoa izango arautegi hau aldatzea.

Aretoa egoera egokian eta txukun uzten ez bada, edo aretoko osagairen bat puskatzen bada, eskabidea egin duenak ordainduko ditu konponketa nahiz garbiketa lanak. Konponketa nahiz garbiketa lanen kostuari %20 gehituko zaio kudeaketa gastuengatik.

8. Hobariak.

%75eko hobaria aplikatuko da eskatzailea denean eskualdeko pertsona fisikoa edo irabazi asmorik gabeko elkartea. Halaber, hobari berbera aplikatuko da eskatzailea denean Udal Elkarteko Enpresa Sustapeneko Zerbitzuaren laguntzarekin sortutako enpresa edo sortu berria den (sortu eta lehen bi urteetan) eta eskualdean egoitza duen enpresa.

Nolanahi ere den, hobaria %100ekoa izatea onartu ahal izango du Udal Elkarteko lehendakariak, ekitaldia interes orokorrekoa baldin bada eta eskualdeko irabazi asmorik gabeko elkarteek antolatua baldin bada.

9. Arau hauen interpretazioa.

Udal Elkarteko lehendakariari dagokio arautegi honen gainean sortzen diren zalantza eta gorabeherak argitu eta ebaztea eta, horretarako, egoki iritzitako neurriak hartu ahal izango ditu (autolikidazio sistema ezarri, fidantzak eskatu eta abar).

4. Solicitudes.

Las solicitudes se presentarán, con la debida antelación, por escrito, ajustadas al modelo de solicitud que estará a disposición de las personas solicitantes en la Secretaría de la Mancomunidad y en su web (www.urolakosta.eus).

5. Calendario y horario.

Se podrán utilizar los locales todos los días laborables en que las instalaciones de la Mancomunidad estén abiertas, siempre que la Mancomunidad no los necesite para sus actividades. El horario de uso de los locales será de 8:00 a 15:00.

Las solicitudes de otros horarios se estudiarán y resolverán caso por caso.

6. Uso adecuado de los locales.

Los usuarios utilizarán los locales de forma adecuada y se dejarán en la misma situación del principio (sillas, mesas y demás elementos como al principio). La Mancomunidad ofrecerá al solicitante las instrucciones necesarias para su correcto uso, si bien no se prestará ningún apoyo adicional durante la celebración del acto.

En caso de que el solicitante desee instalar en el local algún elemento (decorativo, comunicativo etc.) se señalará de forma precisa e la solicitud.

7. Precios públicos.

Para el uso de los locales se deberán de abonar los siguientes precios públicos:

— *Local:* Salón de actos.
*Precio dos primeras horas:* 75,00.
*Horas sucesivas Precio hora:* 30,00.
— *Local:* Aula de formación.
*Precio dos primeras horas:* 50,00.
*Horas sucesivas Precio hora:* 20,00.

A los precios indicados hay que añadirles el IVA de tipo general.

Estos precios serán actualizados anualmente, en enero, aplicando el IPC interanual (octubre-septiembre del ejercicio anterior) de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Para la aplicación de los precios actualizados no será necesaria la modificación de la presente norma reguladora.

En el caso de que el local en cuestión no se deje en las condiciones de limpieza adecuados o que algún elemento del mismo haya sufrido desperfectos, el solicitante abonará los gastos de limpieza o reparación de los mismos. A los gastos de limpieza o reparación se añadirá un 20% por los gastos de gestión de la Mancomunidad.

8. Bonificaciones.

Se aplicará una bonificación del 75% cuando el solicitante sea: Una persona física o una asociación sin ánimo de lucro de la comarca o una empresa, bien constituida con el apoyo del Servicio de Promoción de Empresas de la Mancomunidad, o bien una empresa de reciente creación (hasta dos años) con sede social en la comarca.

No obstante, la Presidencia de la Mancomunidad podrá aplicar una bonificación del 100% en el caso de que el acto a celebrar en los locales de la Mancomunidad sea de interés general y sea organizado por una asociación sin ánimo de lucro de la comarca.

9. Interpretación de la normativa.

Corresponderá a la Presidencia de la Mancomunidad resolver las diferencias y dudas que se planteen en la aplicación de estas normas y la adopción de cuantas medidas sean necesarias para su correcta aplicación (implantación de un sistema de autoliquidación, solicitud de fianzas etc.).

EK\CV GAO-I-2017-00589